

## ERRETRATOAK

### Jarduera

Pintura teknika desberdinak erabiliz, erretratuak marrazten ikasi koloreetan edota txuri-beltzean ere.

### Deskribapena

Erretrato bat marraztea ez da gauza simple eta erraza, praktika eskatzen baitu. Tailer honetan erretrato batek dituen ezaugarriak zeintzuk diren ikusi eta aztertuko ditugu. Marraztu nahi dugun aurpegiaren xehetasunak kontuan izanik eta beharrezkoak diren neurriak hartu ondoren, pausoz pauso erretratua egingo dugu.

### Helburuak

- Erretratoa marrazteko teknikak ezagutzea
- Ikasitakoa praktikan jartzea
- Kontzentrazioa lantzea
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

### Nori zuzendua

Helduak.

### Ikasleak eraman beharreko materiala

Oinarrizko materialak zentroak jarriko ditu baina ikasle bakoitzak bere proiektua burutzeko behar duen berariazko materiala eramango du.